

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Hasierako onespena ematea industria-lurrari buruzko OR-11 eta OR-13 ordenantzetan (Santo Tomas Ibaiaren plaza) erabileren bateragarritasunaren inguruan Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2020ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea industria-lurrari buruzko OR-11 eta OR-13 ordenantzetan (Santo Tomas Ibaiaren plaza) erabileren bateragarritasunaren inguruan Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari, Vitoria-Gasteizko Udalean 2020ko otsailaren 10ean erregistratutako proiektuaren arabera.

2. Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea plangintzaren aldaketa honi buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldiaren barruan.

3. Gorbea Sociedad de Capitales SLri jakinaraztea ezen, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019ko urriaren 8ko ebazpenak adierazten duen bezala —aldakuntzaren ingurumen-txosten estrategikoa formulatu zen haren bidez, eta 2019ko azaroaren 4ko EHAAn (209. zk.) argitaratu— eremua lurzorua kutsa dezaketen instalazio edo jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dagoela eta, horrenbestez, Ingurumen Organoak lurzoruen kalitateari buruzko adierazpena egin beharko duela hirigintzako jarduketa-programari hasierako onespena eman aurretik edo, halakorik ez bada, eremua birpartzelatzeko eta urbanizatzeko proiektuen hasierako onespeneren aurretik, ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoa betez.

4. URA, Uraren Euskal Agentziari txostena egiteko eskatzea, ekainaren 23ko urari buruzko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan xedatutako ondorioetarako.

5. Udal kontu-hartzaileari txostena eskatzea prozedura hau tramitatzeak dakartzan betebeharrak ekonomikoez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikuluko 2. apartatuaren arabera.

6. Aldakuntzaren inguruko agiriak jendaurrean jartzea eta horren berri ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz ematea, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta hilabeteko epean egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Nolanahi ere, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak ezartzen duenaren ildotik, dosierra kontsultatu eta alegazioak aurkezteko epea etenda dago, eta, beraz, delako Errege Dekretuaren indarraldia edo haren luzapenena bukatzen denean hasiko da zenbatzen.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 5ean

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE